

## Susto ederra



Gaur goizean Izaskun presaka dabil. Lagunekin aterpe batera joango da autobusez. Autobusa bederatzietan da. Gauza guztiak maletan sartu eta autobus-geltokira doa gurasoekin.

—Azkar! Berandu da eta! —esaten du Izaskunek.

Izaskunen gurasoak lasai doaz. Ez dute presarik.

—Izaskun, lasai egon. Oraindik ez da ordua.

Izaskun geltokitik begirutzen ari da eta ez ditu bere lagunak ikusten.

Oso urduri dago.

—Ai ama! Hemen ez daude nire lagunak eta autobusik ere ez dago. Zer egingo dut orain?

Izaskun negarrez hasi da. Aitak galdetzen dio amari:

—Nik ez dut erlojurik. Zer ordu da?

—Ene! Hamarrak laurden gutxiago dira. Baina bapatean, amak  
Izaskunen lagunak ikusten ditu eta esaten du:

—Begira! Hortik datoz zure lagunak!

Izaskunek, negarrez, esaten die:

—Berandu da eta autobusa joan da!

—Burutik jota zaude, ala? Ez da berandu! Bederatziak laurden gutxiago  
dira. Goiz da, oraindik —esaten dio Gontzalek.

—Nire erlojua gaizki dabil. Ez dabil ondo —esaten du amak.

Eta guztiek batera esaten dute:

—Uf! Nolako sustoa!



## SUSTO EDERRA

### Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Nola dabil gaur goizean Izaskun?

.....

2.- Nora joango da gaur?

.....

3.- Norekin joango da aterpera?

.....

4.- Nortzu doaz lasai?

.....

5.- Zer ez du ikusten geltokian Izaskunek?

.....

6.- Nola dago Izaskun?

.....

7.- Zertan hasi da Izaskun?

.....

8.- Zer ordu da amaren erlojuan?

.....

9.- Nola dabil amaren erlojua?

.....

10.-Nortzuk esaten dute: AUf! Nolako sustoa”?

.....